

## 2024/2025 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 7tik 23ra** (biak barne) izango dela **2024-2025 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea. Matrikulatzeko hitzordua hartu behar da honako [galdetegia](#) betez. [Informazio gehiago...](#)**



## Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

**Otsailaren 7an** izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



## Otsailak 9, inauteriak

10:30ean: **HHko dantza saioa** Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egingo balu, ikastolako frontoian egingo genuke.

10:50etan: **DBHko eta LHko desfilea** kaleetan zehar

11:45ean: **DBHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

15:30etan: **LHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

Ikusleentzako oharra:

Kiroldegiko zelaiaren kanpo aldetik sartuko dira ikusleak.

DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da; arratsaldeko LHko ikuskizunerako, aldiz, LHko ikasle bakoitzari, ikastolan bertan txartel bana eman zaio eta soberan geratu diren txartelak hemen [klikatuz eskatu](#) ahal izango dituzue. Egunean bertan txartelak 12:30etik 14:30 bitarte idazkaritzan jaso ahal izango dituzue.



## DBH2-ko ikasleen proiektua

Kaixo denoi,

DBH2. mailako ikasleak gara eta Proiektu komunitarioko ikasgaian lanketa bat burutzen ari gara Animalien Babeslekuari laguntzeko, bertan bizi diren animalien bizimodua hobetzeko hain zuzen; horregatik laguntza eskatu nahi dizuegu.

Aterpetxean bizi diren animaliei hainbat gauza falta zaizkie eta material-bilketa bat egiten hasi gara. Material hori ondorengo da: ogi gogorra, egunkari zaharrak, kuxinak, mantak eta animalien jostailuak.

Proiektua aurrera eramateko, hainbat ekintza burutzen ari gara: zozketa-txartelak saltzen ari gara, hainbat sentsibilizazio saio egin ditugu ikastolan eta herrian ere mahai informatibo bat jarriko dugu. Horretaz gain, galdetegi bat prestatu dugu sentsibilizazioa ere herrian zehar zabaltzeko. Galdetegia betetzeko [hemen klikatu](#), asko eskertuko genizuke hori betetzeko tartetxo bat hartuko bazenu.

Material-bilketari dagokionez, kaxak jarrita ditugu ikastolan (LH eta DBH eraikinetan), Sutegin, Kiroldegian, BM-n eta Eroskin. Kaxa horiek otsailaren 8an kenduko ditugu, beraz, ez galdu denborarik eta ekar ezazue ahal duzun hori ahalik eta lasterren, bertako animaliek asko eskertuko dizuete!

Mila esker!

DBH 2-ko ikasleak

## Elurretara irteera

Egun bateko eski irteerara joateko gutxieneko haur kopurua ez denez osatu, ez da egun bateko irteerarik egingo. Nahi izanez gero, izena eman zenutenok bi eguneko irteerara joan zaitezke **otsailaren 9** baino lehen [galdetegi hau](#) betez gero. Prezio diferentziaren (170 €) ordainagiria bertan atxiki beharko da. Ez joatea erabakiz gero, dirua itzuliko zaizue.



Bi egunetarako irteerara doazen haurren familiekin **bilera** bat egingo da **otsailaren 15ean**, osteguna, **16:45ean** Udarregi Ikastolako jangelan. Bertan, irteerari buruzko zalantza guztiak argitzen saiatuko gara.

## Jangela menuak

Otsaileko menua honakoa izango da:

- 3 – 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 – 16 urte. [Intolerantziadun menua](#)



## HarEman

Usurbil Harrera Herria izateko lan-ildoaren barruan, komunitatetik iritsi berriei harrera emateko proiektu berri bat sortu da.



Proiektuak HarEman izena du eta mentoretza sozialetik dator, esku-hartze sozialeko metodologia da bi pertsonen artean konfiantza harremana sustatzeko. Pertsona mentoreak bere erreferentzia eta akonpainamendua eskaintzen dizkio inklusioa lortzeko zailtasunak dituen beste pertsona bati. Nola? Denbora partekatzen aisialdian eta pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutzen, elkarren arteko harremana elikatuz. Hau da, hartu eta eman, HarEman!

Parte-hartzea borondatezkoa da eta 5-6 hilabeteko konpromisoa eskatzen da.

Proiektuak irauten duen bitartean laguntza eta jarraipen teknikoa izango dute parte-hartzaileek

Kontaktua: [hareman@zabalduz.eus](mailto:hareman@zabalduz.eus) edo 747 490194

## Zinea

Otsailaren 4ean 17:00etan Sutegin Haurrentzako zinea: "Ainbo, Amazoniako gerraria" izango da.



# HAUR-HEZKUNTZA

## Inauteriak

### ❖ Haur Eskola (0-3):

Datorren ostiralean, Otsailak 9, goizeko 10:00etan inauteri-festa ospatuko da Haur Eskolako patioan. Haurrek hezitzaileek aldez aurretik esandako jantziekin etorri beharko dute Haur Eskolara. Jaialdia ikuslerik gabe egingo da.

### ❖ Haur Hezkuntza (3-6):

Datorren ostiralean, otsailak 9, goizeko 10:30etan inauteri festa egingo dugu Mikel Laboa plazan, eguraldi txarra egingo balu ikastolako frontoian egingo genuke.

Goizean haurrak zakuarekin jantzita etorriko dira gelara eta ,nahi duena, galtzerdi-abarkak oinetan jantzita. Aurten berrikuntza bezala, gela bakoitzean AURPEGIAK MARGOTZEKO TXOKO bat jarriko dugu 9:00etatik 9:45etara. Beraz, gurasoek aukera izango duzue norbere haurrari eta gainontzekoei aurpegia margotzeko. Nahi duenak etxetik margotuta etortzeko aukera ere izango du.



Eguerdian haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala.  
OHARRA: Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.

## HH5

Datorren asteazkenean, **Otsailak 7**, HH5eko haurrak **EZ DIRA BASOESKOLARA** joango, inauterietako entsegua izango baitute.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Zorriak LH1

LH 1eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



## LH Inauteriak

**Gaur**, LHko ikasle bakoitzari inauterietako kiroldegiko ikuskizunera sartzeko **txartel bana** emango zaio.

Familiaren batek joan ezin badu, ikasleak txartela tutoreari bueltatzea eskertuko dizuegu, beste pertsona batzuei emateko.



## Irteeren kobrantza

### ❖ LH2

Datorren ostiralean, **otsailak 9**, Eureka Zientzia Museoko eta kurtso amaierako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **17,30 €** da eta honela banatzen da:

- Miramonera autobusa: 4,80 €
- Eureka museoko sarrera: 7,50 €
- Txurruka 2. Zafia: 5 €



## ❖ LH6

Zumaiako Flysch-era egindako irteeraren kobrantzan akatsa egon zen eta **3,05 €** gutxiago kobratu zenez, **gaur**, diferentzia horren kostua kobratuko zaizue errezibo bidez.

## LH 4ko familiei zuzenduta

Udaletxeko Kultura-Sailetik, LH 4. mailako gurasoentzat, ondorego oharra jaso dugu:

### **SANTIXABELAK ANTOLATZEKO BILERA-DEIA**

Iritsi zaigu berriz ere Santixabel Jaiak antolatzen hasteko garaia.

Atsegin handiz gonbidatzen zaitugu Jai-batzordearen lehenengo bilerara.

**NOIZ: otsailaren 6an, asteartea**

**NON: Potxoenea Kultur Etxean**

**ORDUA: arratsaldeko 18:30ean**



# DBH

## Irteeren kobrantza

### ❖ DBH2

**Datorren ostiralean, otsailak 9, DBH 2. mailako** ikasleek Bertitz-Narbartera egingo duten irteeraren 2. zatia kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kobrantza **30,00 €** izango da.

### ❖ DBH3 frantsesa

Gaur, Bordeleko irteerara joango direnei **40 euro** kobratuko zaie, irteeraren gastuen aurrerapen bezala, ikastolako kontuaren bitartez.



### ❖ DBH4 eskalatzera

DBH4koak Udaberrian eskalatzera joango dira Hernaniko Santa Barbara auzora. Gipuzkoako Mendi Federazioaren eskutik egingo da eta **5 euroko** kostua izango du. Zenbateko hori, **gaur**, kobratuko da errezibo bidez. Eguraldi txarra egingo balu, ekintza barruan (rokodromoan) egingo litzateke eta horrek beste 5 euroko kostua izango luke, baina eguna gerturatzan ari den heinean jakinaraziko zaizue.